

2005eko azaroak 28an Orion ospatu zen Herritar Foroaren ondoren, Orioko Udaleko arduradun politikoak 2005eko abenduaren 21ean bildu ziren Herritar Foroaren proposamenak aztertzeko.

Herritar Foroan hainbat ekintza berri proposatu ziren, guztiak aztertu ondoren Tokiko Iraunkortasunerako Ekintza Planean sartuko ez direnak aipatzen dira hemen, ez sartzeko arrazoiak argituz.

PROPOSAMENA	EZ SARTZEKO ARRAZOTIAK
<i>“Orioko 8.000-10.000 biztanlera iristen denean azterketa sozioekonomikoa egin. Tokiko Agenda 21eko prozesua amaitu arte, Orioko Planeamenduko AASSen berrikuspen prozesua eten.</i>	AASSen arabera Orioko hazkuntza ez da 6.000 biztanle baino gehiagokoa izango momentu honetatik 2010 urte bitartean, beraz ez du zentzurik 8.000 eta 10.000 biztanleko hazkuntza hori planteatzea.
<i>Etxebizitza beharra asetzeko azterketa bat egin (zenbat, zein motatakoak...).</i>	Ekintza Planean badago ekintza bat “Udala eta gazteen artean elkarrizketak mantendu hauen etxebizitza beharrak ezagutu eta kudeatzeko”, elkarrizketa hauek burutzen direnean ikusiko da planteaturiko azterketa benetan beharrezkoa den edo ez.
<i>Herriaren hazkuntza ikusirik kontutan hartu beharko litzateke osasun beharrak handitu direla. Zerbitzuen aurreikuspena herriaren hazkuntzarekin koordinatu beharra dago.</i>	Zerbitzuen inguruko beharretan bi atal ikusten dira: 1. Gazteei zuzenduriko ekipamenduen beharra lantzen ari den Gazte Planean aztertzen ari dela 2. Osasun zerbitzuen inguruan ikusten da laster Zarautzen eskualderako osasun zentroa egongo dela, bestetik anbulatorioak badu hazteko ahalmena beharrezko balitz, eta gainera osasun zerbitzuak ez dira Udalaren eskumena
<i>4.3.1. Oinezkoentzako bidea egokitu Txanka eta Anibarko Portua lotuz. Ekintza egokitzea proposatzen da: “Txanka eta Anibarko Portua lotzeko bideak aztertu”</i>	Gipuzkoako Foru Aldundiarekin harremanak izan dira, baina errepide nazionala denez biderik ezin da egin
<i>Udaleko organo guztietan (informazio konfidentziala den batzordeetan izan ezik) herritar soilen parte-hartzea baimendu.</i>	Batzordeetan jorratzen diren gaiak interesatu zehatzak dituztenean parte hartzea gonbidatzen zaie, bestela ere, eskaria eginez parte hartu ahal da.

Herritar Foroan eginiko komentario edo iradokizunak zerrenda honetan agertzen ez badira kontutan hartu izan direlako da.

Bestetik Herritar Foroan markatu ziren lehentasunekin Udala ados dago, hala ere, zehaztu beharra dago nahiz eta lehentasuneko ekintza moduan markatu bere exekuzioa aurrekontu eta diru laguntzen menpe egongo direla beti ere.